

“BERBALAGUN”
Helduen euskalduntze-alfabetatzea
suspertu eta euskararen erabilera
bultzatzeko egitasmoa - 2022

AURKIBIDEA:

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- OINARRI NAGUSIAK:

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

3.2.- KRONOGRAMA

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

3.4.- ORGANIGRAMA

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

5.- AURREKONTUA

ERANSKINAK:

I. Eranskina: 2020ko hitzarmen berria (indarrean dagoena)

II. Eranskina: 2021-2022ko AEK-ren plangintza

1.-SARRERA

2004an abian jarri zenetik mantendu egin den egitasmoa dugu eta iraun dezan ahaleginean gabiltza. Aurreko urteetan izandako balantze positiboa eta emaitza ezin hobeak azpimarratzekoak izanik, 2020tik indarrean daukagun pandemia edo larrialdi egoerak eragiten digu derrigorrez. Beraz, egin beharreko egokipenak bitarteko, “Berbalagun” proiektua bideragarri izan dadin soluzioak hartu behar izan dira eta hartu beharko.

Duela bost urte, 2017an, urte berezia izan zen Berbalagun proiekturako, “Gernika-Lumo eta inguruko ibilbideak” argitalpena kaleratzeko diruzko ahalegin nabarmena bitarteko, baina ez zen gutxiago izan 2018a, “Euskaraldia” sustatzeko bidelagun garrantzitsua izan genuelako Berbalagun, 2020an garatu zen Euskaraldiaren II. edizioan izan zen beste.

Halandaze, 2022an Berbalagunen betiko atalak zelan indartzeaz aparte, arduraren berezia jarri nahi dugu Berbalagunkide berriak erakartzeari (jende gaztea, Helduen ikastegiko ikasleak,...).

2.- HELBURUAK

“BERBALAGUN” proiektu honekin lortu gura diren helburuak:

- Euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea.
- Euskara ikasleen motibazioa lantzea.
- Euskara ikasleengan suspertzea.
- Euskara ikasleen integrazioa bultzatzea.
- Euskara gaitasuna hobetzea.
- Euskaldunak erdaldunen integrazio prozesuan inplikatzeko.
- Gernika-Lumoko berbakera ezagutzera ematea.

Eta hori guztia, ESEPeren arabera moldatutako 2022ko Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzak oinarri:

Helburua estrategikoa: 1.- Transmisioa / ondorengoetaratzea.
Esparrua eta helburua:

3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)

3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea

- 3.8.2.2.- Helduen adin-taldea kontua hartu, Berbalagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak antolatu

Helburua estrategikoa: 2.- Erabilera.

Esparrua eta helburua:

5. Gune geografiko euskaldunenak

5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)

5.1.6. Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea

- 5.1.6.3.- Helduentzako ikastaroak eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, jostekoa, bitxi-gintza, dantza,...

Aipatu ekintzekin lotura duten beste ekintza batzuk:

- | |
|--|
| - Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa. |
| - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea |
| - Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua |
| - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu |
| - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu |
| - Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu |
| - Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu (hitzaldiak) |

3- OINARRI NAGUSIAK

Zutabea dugu Gernika-Lumoko Udala eta Gernikako AEKren artean sinaturiko hitzarmena; 2004an sinatu zen lehenengoa, 2016an berriztatu zen gero, eta, gaur egun indarrean daukagu 2020an sinatu zena, egin beharreko egokipenak bitarteko. Arestian esan bezala, helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertu (ondorengoteratzeko helburu estrategikoa) eta euskararen erabilera areagotzea ditu helburu nagusizat.

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

- **Eginbehar nagusiak.**- Aurreko urteetan finkatutako hobekuntzei eutsi behar zaie 2022an, egitasmoa gauzatu ahal izateko lanen sistematizazioa lortze aldera:
 - Talde eragilearen koordinazio-bileren aldikotasuna bermatu.
 - Kanpainan partaide diren mintzakideentzat zein hauen lagun hurkoentzat hileko programazio berezia eratu.
 - Kanpainarako mintzakideak erakartzearen, zabalkundea urtero egiteko sistema zehaztu.
 - Hileko Berbalagun-eko programazioaren berri emateko komunikazio-plantzoa eratu.
- **Dinamizaziorako ekintzak:**
 - Mintzalagun taldeak eratu (euskaldun zahar bat eta beste lau berbalagun trebagai; guztira 15 bat talde).
 - Telematikoki berbalagunkidekin mintzasaioak egiteko sistema informatikoa moldatu.
 - Tailerrak antolatu (berbalagunkideek lehentasuna izan arren, zabalik daude tailerrok edonorentzat).
 - Hileroko mendi irteerak berreskuratu (hilean behin, ekologia, historia, ohitura edo abarrak lantzeko fitxak baliatuz / “Gernika-lumo eta inguruak ezagutzeko ibilbideak” argitalpena).

- “Ezetz jakin” lehiaketa paperezko formatuan berreskuratu. Pandemia aitzakia, “Egunean behin” lehiaketa digitalera jo eta Gernika-Lumoko talde berezia eratu zen; guztira 130 bat partaide eta sariak emateko bono sistema erabili izan da azken bi urteetan. Aurtengoan, 2022an, berreskuratu gura da paperezko jatorrizko “Ezetz jakin” lehiaketa egokian batzuekin: hogeit hamar galdera izan beharrean hamar, sarietarako bono-sistema mantendu (irabazleari 80 euroko saria, galdera guztiak asmatzen dituztenen artean, eta zozketa bidezko 20 euroko saria, partaide izan direnen artean).
- Euskal literaturaren inguruko tertuliak (dinamizatzailea Onintza Enbeita). Presentziala ezin izango bada, sare sozialetatik plataforma bat eratu da burutu ahal izateko.
- **Azpiekintza bereziak:**
 - 2007an Berbalagun egitasmoarekin lotu zen ikastolen jaialdietara (Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats) joateko bidaien antolakuntza, guztira 5 jaialdi. Jakina denez, bizi dugun egoerak oztopatu egiten du jarduera hau garatzea.
 - 2022ko Mintzaeguna: irteera berezia, Euskal Herriko “berbalagun” taldeak biltzeko jaialdira. Hau ere zaila izango da bideragarri izatea, baina ikusi dugu.
 - 2022ko “hamaika orduko irakurraldia”, gure udalerrian ohiko bihurtu den ekitaldia, Euskararen egunarekin lotuta; 2021ean ere burutu izan da, pandemiak jarritako mugak kontuan hartuz, partaidetza zabalarekin eta modu duinean, kalean. Beraz, aurtengoan ere jarduera horri eutsiko diogu.
 - Helduen ikastegiarekin lanketa berezia, bertako ikasle helduen kopuru handiarekin harremanak sakonduz, Berbalagun-era erakarri asmoz.
 - “Gernika-Lumo eta inguruak ezagutzeko ibilbideak” argitalpenerako bost fitxa berri eratu ziren 2020an. Argitalpenari etekina atera, zabaldu eta erabili (mendi irteerak).

3.2.- KRONOGRAMA

Ikusi II. Eranskinean koordinatzaileak mintza taldeen eraketari buruz eta egitasmoaren dinamizazioaz egindako txostena.

Jarduerak (2021-2022)	Urt	Ots.	Martx	Apir.	Maia.	Ekain.	Uztail.	Abuz	Irail.	Urria	Aza	Abend
Ekintzak planifikatzea									2023r ako			
Boluntarioak biltzea												
Argitalpenerako 5 fitxa berri (txertatu)												
Mintzasaioak antolatu												
2023rako zabalkundea												
Helduen ikastegiarekin lanketa berezia												
Eskolaratzea bideratzea												
Hitzaldiak												
Irteerak												
Jaialdi bereziak												
Jatorduetako taldeak												
Mintzataldeen saioak eta tailerrak antolatu												
Talde eragilea (batz.)												
Datu baseak osatzea												
“Ezetx jakin” lehiaketa hilero												
11 orduko irakurraldia												
Literatura tertuliak (Onintza Enbeita)												

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:


- Euskara Zerbitzua, egitasmoa diruz eta azpiegituraz hornitzeko.
- Gernikako AEK (egitasmoaren koordinazioa).
- Euskaltegiak (AEK euskaltegia eta AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia): datu baseak sortu zabalkunderako eta eskolaratzea bideratu.
- Busturialdean Euskaraz Bizi: egitasmoaren zabalkundea egin eta partaideak eta bolondresak bilatu.
- Euskara Batzordea (egitasmoaren bultzatzailea eta babeslea).
- Udaleko Hezkuntza Saila (ikastoletako jaialdi berezietarako bidaiak antolatzea).
- Zentroetako Guraso Elkartek
- Helduen ikastegiko zuzendaritza taldea eta bertako ikasle elkartea

Baliabideak:

- Diruzkoak eta azpiegiturarakoak Udaleko Euskara Zerbitzuak jarriko ditu, 2022ko Kudeaketa Plana garatzeko aurreikusitako partidetatik eta azpiegitura aldetik Udalarenak erabiliz (Kultur Etxeko gelak,).
- Giza baliabideak:
 - Euskara Teknikaria (Euskara Zerbitzua)
 - AEK-ko teknikaria (Berbalaguneko koordinatzailea)
 - Mintzasaiotarako bolondresak (10/15)
 - Euskaltegietako zuzendariak (Talde Eragilean partaide)

3.4.- ORGANIGRAMA

Egitasmoaren funtzionamendurako eta jarraipenerako eraturako egitura hau xeda:



4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK:

Xede taldea:

Jarraian azaltzen den koadroaren arabera, egitasmo hau doakien unibertsoa “(*)” ikurraz azpimarratutakoen batura litzateke, 3.836 biztanle 2001eko erroldan; 2006koan 2.779+euskaldunen hamarren bat (3.800 inguru); 2011koan 1.955+euskaldunen hamarren bat (3.500 inguru). Ondorioztatzen duguna da erdaldungoa murriztuz joan dela 1991tik 2006ra eta hortik aurrera berriro goranzko joera hartu duela. Euskaldunena mantendu egiten da (euskaldun zaharrak+euskaldun berriak) eta ia euskaldunena murriztu egin da azken bolada honetan.

	1991 urtea		2001 urtea		2006 urtea		2011 urtea		2016 urtea	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Euskaldun zaharrak	8720	56,63	8180	56,33	10.552	67,87	10.486	67,40	11.300	70
Jatorrizko elebidunak (*)	793	5,15	743	5,11						
Euskaldun berriak (*)	692	4,49	1173	8,08						
Partzialki euskaldun berriak (*)	1297	8,42	1458	10,04	2.779	17,87	1.955	12,56	1.875	12
Partzialki erdaldunduak (*)	625	4,06	462	3,18						
Guztiz erdaldunduak	227	1,47	159	1,09	2.216	14,25	3.117	20,00	2.992	18
Erdaldun zaharrak	3043	19,76	2344	16,14						
	15397	100	14519	100	15.547	100	15.558	100	16.167	100

Dena dela, guk, zabalkunde orokorra egiteaz gain, eraginkortasuna aitzakia eta xede taldea zehazte aldera, hurrengo hauek izango ditugu kontuan zabalkunde berezia eta pertsonala egiteko:

- Euskara ikasten edo lantzen ari direnak (400 bat)
- Euskaltegietako ikasle ohiak (700 bat)
- Helduen ikastegian ari diren ikasleak (200 bat)

Adierazleak:

- Zehaztutako xede taldetik partaide izango direnen kopurua.
- Euskararen erabilerari buruzko neurketak (Soziolinguistika Klusterra).

5.- AURREKONTUA

Egitasmoaren dinamizazioa –teknikaria-, bulego gastuak. (AEK, hitzarmena)	14.000
Dinamizazioa / publizitatea: antolaketa, tailerrak, irteerak, ikastaroak, plataforma birtualak,....	5.000
Gastuak guztira	19.000

Gernika-Lumon, 2022eko urtarrilean

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Arloko Zinegotzia



Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Tek.



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



1. ERANSKINA

**“AEK EUSKARAZ KOOP. ELKARTEA”
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA,
“BERBALAGUN” EGITASMOA
GARATZEKO**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hogeiko azaroaren 11n eta Udal Idazkaria naizen Itxaso Tregueros Rojo andrearen aurrean.

BILDUTA

Batetik, Mertxe Mujika Balanzategi Andrea, adinekoa eta NAN zbk. 78.864.768, AEK Euskaraz Koop. Elkartearen izenean arituz (IFK: F-95222816).

Bestetik, Jose Maria Gorroño Etxebarrieta Alkate jauna (NAN zk. 72243666-E), Gernika-Lumoko Udalaren izenean (helbidea: Foru Plaza 3. zk./ I.F.K.: P-4805500-H) jarduten duelarik.

AURREKARIAK

I.- Diru-laguntzen Lege Orokorreko (38/2003, abenduaren 17koa) 28. Artikuluaren arabera, hitzarmenak izango dira diru-laguntza mota hauek bideratzeko ohiko tresna eta, bertan (edota ebazpenean), emandako laguntzaren baldintza eta konpromisoak ezarriko dira.

II.- Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2020ko azaroaren 4an egindako bilkuran, besteak beste, 14.000 euroko diru-laguntza ematea eta dagokion hitzarmena sinatzea onartu zuen.

III.- Aipatutako diru-laguntza MINIMIS laguntzen baldintzak betetzen ditu, UE 1470/2013 araudian arautzen denari jarraiki.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen, 2003ko Kudeaketa Planarekin batera, horren bitartez hiru helburu estrategiko landu asmoz:

- 1. Helburu estrategikoa: euskara ondorengoetaratztea.

- 2. Helburu estrategikoa: euskararen erabilpena.
- 3. Helburu estrategikoa: euskara elikatzea.

Plan Estrategiko horren magalean, Gernikako AEK Euskaraz Kooperatiba Elkartearen arduradunek eta Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Sailak elkarlanerako hitzarmena sinatzea erabaki zuten 2004an, “Berbalagun” proiektua gauzatu ahal izateko. Aipatu hitzarmena luzatu izan da urtero gaurdaino, bere helburu eta konpromisoari eutsiz.

II

Orduko hitzarmenean aipatzen izan dena berretsi nahi da hemen: “Gernika-Lumon euskararen normalizazio ahaleaginean lehentasuna euskararen erabilerak baldin badauka ere, ezin dugu inolaz ere ahaztu helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA eta berau suspertzeko asmoarekin idatzita dago proiektu hau. “

III

Bidean utzi ditugu 2008-2013 eperako Plan Estrategikoa, 2014-2018 epekoa eta indarrean daukagu orain 2019-2022 epeko ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana). Beraz, urteroko Kudeaketa Planei jarraiki, 2020koan ere leku berezia eta lehentasunezkoa dauka “Berbalagun” proiektuak, urteetan zehar erantsitako hainbat ekintza eta jardueraz apainduta.

IV

Beraz, Gernika-Lumoko Udalak eta AEK Euskaraz Kooperatiba Elkartek, elkarlanerako honako HITZARMENA sinatzen dute eta, horren barruan, adosten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehenen.- AEK Euskaraz Kooperatiba Elkartearen Gernikako ordezkariak, 2014an hartutako konpromisoa berretsi nahi du, “Berbalagun” egitasmoa indarberrituta 2020an gauzatzen jarraitzeko.

Konpromiso eta bete-behar horien artean, hurrengoak dira azpimarratzekoak:

1.- Teknikari lanak betetzeko pertsona bat liberatuko du 530 orduz, irailetik ekainera bitartean, ikasturteak iraun artean.

2.- Teknikari horrek hurrengo funtzioak beteko ditu nagusiki:

- Aurreproiektuan aintzat hartu den Talde Eragilearen dinamizazioa.
- Talde Eragilea eta Euskara Batzordearen arteko zubi lanak betetzea.
- Talde Eragilearen ebatziak gauza daitezen gestioak burutu, azpiegitura beharko den kasuetan Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean arituz.

3.- Berbalagun proiektua ikasturteka antolatzen denez, urtero ekainaren azkenerako txosten orokor bat aurkeztuko dio Gernikako AEK Elkarteak Udalari, ikasturtean garatutakoaren balorazioarekin.

Bigarrena.- Aurreko klasusulan adierazitakoarekin bat, Berbalaguneko Taldea Eragilea hurrengoek osatuko dute:

- Berbalagun egitasmoaren dinamizatzailea/teknikaria.
- Gernikako AEKren ordezkaria.
- Aita Villasante Udal Euskaltegiko ordezkaria
- Busturialdean Euskaraz Bizi Elkarteko ordezkaria.
- Udalaren izenean Euskara Zinegotzia eta Euskara Zerbitzuko teknikari bat.

Bigarrena.- Gernikako AEK Elkarteak, lehenengo klausularen arabera burutuko dituen lan guztiekiko txosten bat aurkeztuko dio Gernika-Lumoko Udalari hiru hilabeterik behin, aldezturik txosten horren berri Berbalaguneko Talde Eragileari emanda, berau izango baita proiektuaren jarraipena eta zaintzaren ardura izango duena.

Hirugarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, “Berbalagun” proiektuarekiko hurrengo konpromisoak hartu ditu:

1.- Talde Eragilean parte hartzea, Euskara Zerbitzuko Teknikari bat eta Euskara Zinegotzia partaide izanik.

2.- Proiektua gauzatzeko beharko liratekeen azpiegitura (tailerrak, hitzaldiak eta taldekako jarduerak antolatzeko lokalak) eta gainerako baliabideak eskaintzea (fotokopiak, megafonia, kartelak,...).

3.- 2020ko aurrekontuan 18.500 euro burutzea egitasmo honetarako, hurrengo era honetara banatuta:

A).- AEK Euskaraz Kooperatiba Elkarteari diru laguntza ematekoa, 14.000 euro (proiektuaren dinamizatzaile/teknikariaren ordainsaria, antolaketarako azpiegitura -ordenagailu, telefono, posta, gutun azal eta abarretako gastuak).

B).- Talde Eragilearen ardurapean, Gernika-Lumoko Udaleko aurrekontutik kudeatuko den partida, tailerrak, ikastaroak, irteerak eta abarrak antolatzeko gastuetarako 4.500 euro (kartelak, publizitatea,...)

Laugarrena.- AEK Euskaraz Kooperatiba Elkarteari ematekoa den diru laguntza, 14.000 euro, hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean ordainduko zaio ordainketa bakar batez. Diru laguntza hau jaso aurretik, 38/2003 Legeak eta honen araudiak zehazten dituzten baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Diru-laguntzak lortzea galarazten duten egoeretan ez egotearen ardurapeko aitortpena; hain zuzen ere, 38/2003 Legeko 13. artikuluko egoeretan ez egotearena.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharretan egunean egotearean ziurtagiria (agiri hori udalak berak lortzeko baimena eman ahalko dio LH-k).
- Zerga betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria (agiri hori udalak berak lortzeko baimena eman ahalko dio LH-k).

Bosgarrena.- Diru laguntza zuritzea

Emandako diru-laguntza 2020 urterako da. Urtea amaitu eta hilabete naturaleko epean (2021eko urtarrilaren 31rako) BBE-k **justifikazio kontua**

aurkeztu beharko du, jasotako diru-laguntza justifikatze aldera. Justifikazio kontua 887/2006 Errege Dekretuko 72. artikuluan xedatu moduan aurkeztu beharko da, bertan agertzen diren memoriak, agiriak eta frogagiriak aurkeztuz.

Gernika-Lumo-ko Udalak emandako diru-laguntza beste diru-laguntzekin bateragarri izango da, betiere gainfinantzazioa ez badago.

Diru-laguntza zuritzeko betebeharrak ez betetzekotan, 38/2003 legeak arautzen duen itzultze prozedura jarriko litzateke martxan.

Seigarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da lau urteko epean, hau da 2020-tik 2023ko abenduaren 31ra arte, betebeharrak finantzarioen aldetik urtero egokipenak aho batez adosteko aukerarekin. Indar epea igaro baina lehen, sinatzaile biek adostuko dute akordioa luzatu ala egoera berriari egokitu beharra.

Zazpigarrena.- Hitzarmenak iraungitzen dira beren xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiren bat izateagatik. Suntsiarazteko arrazoiak dira:

- a).- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- b).- Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.
- c).- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzailerari, epe jakin batean bete ditzan ez-betetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, zuzendu zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoi dagoela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Hitzarmena arrazoi horrengatik

suntsiarazten bada, eragindako kalteen ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.

d).- Hitzarmena deusez deklaratzeko duen erabaki judizialagatik.


e).- Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitako beste edozein arazoirengatik.

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazburuan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA,

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta



AEK Euskaraz Koop. Elkarte
Euskaraz, Koop. E.

F-95222816
Mertxe Mujika Balanzategi

IDAZKARIA,

Itxaso Trigueros Rojo





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



2. ERANSKINA



Gernika-Lumoko Berbalagun

PLANGINTZA 2021-2022

SARRERA

Gernika-Lumoko bebalagunen 2003tik gabiltza euskararen erabilera bultzatzen eta sustatzen, euskaldunak eta ikasten ari direnen arteko harremanak sortuz. Azken urteotan mintzalagun taldeekin batera, askotariko ekimenak abiatu ditugu: lehiaketak, tailerrak, hitzaldiak... Urte hauetako emaitzei eutsi eta helburu berriei ekiteko gogoz, proposamen hau aurkezten dugu.

Azken 2 urteotan COVID19ak baldintzatu izan ditu gure bizitzak, eta, nola ez, programa bera ere. Dena den, aurten egoerak hobera egin eta proiektua indarberritzea espero dugu. Lan horretan garrantzitsua izango da gazteen parte hartzea nolabait indartzea, izan mintzataldeetan edo ekintza osagarrietan.

1.- IZEN-EMATE KANPAINAK

Izen-emate kanpainak

Hiru kanpaina nagusi egingo dira:

- **Iraila-urrian.** hasierako kanpaina egiten da eta izen ematea urte osoan zabalik badago ere, hau da jendea erakartzeko momenturik garrantzitsuen. Ezinbestekoa denez une horretan indarra jartzea, hainbat euskarri erabiliko dira.
- **Urtarrilean.** Indartze-kanpaina. Abiatutako ikasturteko emaitzak hobetzeko kanpaina da. Kanpaina honetarako kartelak eta bannerrak erabili ditugu. GIF animatuak sortu dira sarean eta whatsapp bidez zabaltzeko.
- **Maiatza-ekainean.** Udako kanpaina. Euskarriak kartelak eta esku-orriak diseinatuko dira. Udako kanpainak beti izaten du "irudi freskoagoa".

Iraunkortasuna eta genero-ikuspegia

Iraunkortasuna dela eta, kanpaina nagusiaren euskarri guztietan **paper birziklatua** erabiliko dugu, eta sortzen ditugun euskarri zein produktueta erabilera bakarreko plastikoa baztertuko da.

Genero-ikuspegia landuko da plangintzaren diseinuan eta garapenean. Horregatik, sortuko ditugun euskarri eta baliabideetan bizikidetzan oinarrituta egongo dira, eta garatuko ditugun ekintza guztietan emakume eta gizonen parte-hartze parekidea bilatuko dugu.

2.- PARTE-HARTZAILEAK ETA TALDEAK

Berbalagun programaren erabiltzaileen profila guztiz heterogeneoa bada ere, orokorrean partaideak bi multzo nagusitan bana daitezke; *bidelariak* eta *bidelagunak*. Hala ere, sailkapen hau nahiko subjektiboa eta lanbrotsua da. Norberak aitortu ahal du euskalduntze prozesua amaituta izan arren, oraindik ikasten ari dela.

Garrantzitsua da partaideen gutxieneko euskara maila ziurtatzea komunikazio gaitasuna bermatuta egoteko. Bestela, elkarrizketen erritmoa apur daiteke eta horrekin batera, Berbalagunek frustrazioa senti dezakete. Egokiena da, B1 maila hasita dutenek edo hortik aurrerakoek parte har dezakete. Lan hori dinamizatzailearen esku geratuko da. Maila dela eta salbuespenik egiten bada, erabakia dinamizatzailearen esku geratuko da. Edonola ere ez da komenigarria

talde batean gutxieneko mailarik betetzen ez duen lagun bat baino gehiago kokatzea.

Taldeak sortzeko irizpideak

Kanpaina bideratu ostean aurkezpenak egingo dira. Bidelariei eta bidelagunei sailkatzeko elkarrizketak egingo ditugu, ostean parte-hartzaileak artatu eta taldeak osatuko dira. Taldeak sortzeko ez dago irizpide orokor eta zehatzik, baina saiatuko gara ahalik eta orekatuenak lortzen. Ahal dela, zaletasunak, adina... kontuan izango ditugu. **Xede taldeak edo zaletasunen** inguruko taldeak osatzeko aukerarik egotekotan jarraipen batzordean aztertuko dugu. Horretaz gain, COVID19ak ekarritako berrikuntzen artean ONLINE taldeak daude. **Urri amaieran-azaro hasieran**, ohiko izen ematea amaitu ostean, online taldeak osatzeko eskaintza ere zabalduko dugu. Gainera, **paseolagun** taldeak sustatuko ditugu aukera ematen baitute: tabernen itxiera bitartean, elkartzeko; edo modu seguru eta osasungarrian batzeko.

Taldeetako kide kopurua osasun egoerak baldintzatuko du, horiek zorrotz beteko ditugu eta horien arabera moldaketak egin. Halere, argi dugu **4-5 lagunekoak egokienak direla**; lotsa gaintzeko, guztiok hitz egiteko eta harreman afektiboak modu erosoan lantzeko... Gutxienez astean behin bilduko dira. Taldeetako partaide guztiek ardura bera izango dute, ez da emango irakasle-ikasleen harremana, kideen artekoa baizik.

Taldea elkartzen den lehenengo aldi edota lagun berri bat sartzean denean, dinamizatzailea bertan egongo da. Taldearen funtzionamendu egokia bermatzeko, **argibideen-orria** banatuko du eta kideek egoki ikusiz gero, whatsapp-taldea sor daiteke. Horrekin batera, dinamizatzailearen kontaktu-telefonoa eta e-posta emango da.

Kideen arteko errespetua ezinbestekoa da, beraz, ez da jarrera sexista, homofobo edota arrazistarik onartzen, ezta taldea ezeroso sentiaraziko duen jarrerarik ere. Halakorik egonez gero, parte-hartzaileek dinamizatzaileari jakinaraziko diote neurriak hartzeko.

Taldeen jarraipena

Segimendua egiteko, dinamizatzaileak taldeetako bisitak edota deiak programatuko ditu. Hilean behin egingo du eta horretarako **taldeen jarraipen-fitxa** erabiliko du.

Taldearen funtzionamendu egokirako garrantzitsua da laguntzaile bat izendatzea proiektua eta taldearen arteko lotura izateko. Batzuetan, partaideen euskarareko motibazioa eta parte hartzeko espektatibak lehenengo momentutik agerian geratzen dira, beste batzuetan, konfiantza hartu arte ez dira azaltzen, baina motibazioa mantentzea giltzarria da egitasmoarekiko lotura mantentzeko. Dinamizatzaileak egiten duen segimenduaren bidez horren eboluzioa neurtuko du, eta jarraipen batzordean beharrezko ikusiz gero, motibazioa indartzeko neurriak proposatuko ditu.

Ikasturtearen amaiera baino lehenago parte-hartzaileen **gogobetetze inkesta** bideratuko da eta emaitzak jarraipen batzordean aztertuko dira.

3. EKINTZA OSAGARRIAK

Ekitaldiek eta ekintzek taldeak elikatuko dituzte eta egitasmoaren presentzia handitzeko ere balio izango dute. Ekintza horien guztien berri emango da kartelen bidez eta dinamizatzaileak blogean eta sare sozialetan ere iragarriko ditu.

Parte hartzaileen interesak eta nahiak kontuan hartuta ekintza osagarriak programatuko dira. Horiek guztiak ikasturteko plangintzan jasoko dira eta dinamizatzailerak bideratuko ditu.

COVID19ak ekarritako egoerara egokitu.

Aurrez aurreko saioak edo ekintzak egiten direnean instituzioek ezarritako prebentzio eta segurtasun neurriak kontuan hartuko dira. Modu berean, beharrezkoa den guztietan, ekintzak burutzeko beharrezkoak diren baliabide materialak bermatuko dira: musukuak, gel hidroalkolikoak... Ez hori bakarrik, B plana izango dugu aurrez aurrekoak egitea ezinezkoa denetan: **Autu-Mautuak, topaketa birtualak, lehiaketak...**

4. JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea erakunde sustatzaileen bilgunea eta egitasmoaren gainean erabakiak hartzeko tokia da. Batzordearen funtzio nagusiak honakoa hauek izango dira: programaren inguruko informazioa ematea eta koordinazioa bermatzea, ekintzen ebaluazioa egitea, ardurak banatzea, eta programa aurrera ateratzeko hartu behar diren erabaki guztiak hartzea. Dinamizatzaileraren ardura izango da deialdiak egitea eta bileren aktak jasotzea.

Ikasturtearen amaieran aurkeztuko da eta bertan egindako lanen azalpena jasoko da; taldeen egoera, parte hartzaileen deskripzioa, gogobetetze inkestaren emaitzak eta egindako bestelako ekintzabideen deskargua.

Batzordearen osaketa

- Bittor Zarrabeitia (euskara teknikaria)
- Iñigo Magunaetxebarria (zinegotzia)
- Josu Erkiaga (Aita Villasante udal euskaltegiko zuzendaria)
- Ekaitz Clemos (AEK-ko zuzendaria)
- Pernan Basterretxea (Busturialdean Euskaraz elkarteko kidea)
- Mikel Fidalgo (Berbalagun dinamizatzailerak)

Maiztasuna eta iraupena

- Jarraipen batzordea bi hilean behin batuko da.
- Iraupena: ordu bateko bilerak izango dira.
- Tokia: udaletxea

PRAKTIKATU zerbitzuaren eta dinamizatzaileraren artean etengabeko komunikazioa bermatuko da. Aldiro-aldiri jarraipen batzordeetako informazioa eta bileren aktak jasoko dira. Horrez gain, behar izanez gero, urtean zehar PRAKTIKATU zerbitzuko koordinatzaileak kontraste bilerak egingo ditu udaleko teknikariarekin.

5.- GIZA-BALIABIDEAK, BITARTEKOAK ETA ABANTAILAK

Dinamizazio-lanak

Programaren barruko ekintza guztiak prestatzen, antolatzen eta gauzatzen eta koordinazio lan guztiak egiteko, Berbalagun programak dinamizatzailer bat izango du. Dinamizatzaileraren ordutegia malgua izango da, unean uneko zeregin eta lehentasunen arabera moldatua.

Bere zereginen artean, honako beste hauek egongo dira:

- Gernika-Lumoko Berbalagun programaren kanpaina prestatu eta bideratu.
- Parte-hartzaileen datu-basea elikatu.

- Bidelariei batetik eta bidelagunei bestetik egin beharreko elkarrizketak egin, baloratu eta mintzataldeak osatu.
- Taldeetako bisitak eta segimendua egin.
- Ekintzak proposatu eta antolatu. Ekintzen kartelak diseinatu eta zabaldu.
- Egitasmoaren jarraipen batzordea koordinatu: deialdiak egin, aktak jaso eta informazioa eman...
- Ikasturteko plangintza eta memoria erredaktatzea.

Aholkularitza-lanak

PRAKTIKATU zerbitzuko kideak egitasmoaren gaineko ekarpenak eta etengabeko hobekuntzari begirako proposamen teknikoak egiteaz arduratuko dira, eta hainbat ekintzatan esku hartu dezakete. Aldiro-aldiri, herrietako jarraipen-batzordeetako informazioa eta bileren aktak jasoko dituzte. Dinamizatzailearen formazioaz ere arduratuko dira.

Bitartekoak

Dinamizatzaileentzako baliabide-bankuan beharrezko material eta azalpen guztiak jasota daude. Bertan daude lanerako euskarriak eta txantiloak; eta horiek batera antolatzen ditugun ekintza guztien kontaktuak: ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak... Baliabide-bankua aldiro-aldiri elikatzen da.

Abantailak

PRAKTIKATU zerbitzuak parte-hartzaile guztiei hainbat abantaila jarriko die eskura, inolako gailurik gabe:

- **Harpidetzetan deskontuak:** AIZU!, Argia, Gaztezulo, Harmaila eta Berrian.
- Hileroko PRAKTIKATUren **pack-sarien zozketan** sartuko dira. Horretaz PRAKTIKATU zerbitzua arduratuko da.
- Azkenik, zuenean adostasunik badago, **PRAKTIKATU txartela** ere implementatu ahal dugu; horren bitartez, tokian tokiko deskontuak garatzeko aukera landuko da.

6.- EGUTEGIA

2021eko IRAILA

- Dinamizatzaileak lanean hasi.
- Kanpaina abiatu. Lehen deiak eta mezuak, kartelak eta esku-orriak banatu...
- Lehenengo jarraipen batzordea.
- Plangintza aurkeztu.

2021eko URRIA

- Kanpaina burutu.
- Lehenengo jarraipen batzordea.
- Izenak jaso eta taldeak aktibatu.
- Aurkezpenak euskaltegietan.
- Aurkezpen publikoa / prentsaurrekoa.

2021eko AZAROA

- ONLINE taldeak. kanpaina

2022ko URTARRILA

- Indartzeko kanpaina.

2022ko OTSAILA- MARTXOA-APIRILA

- Parte-hartzaileen asebetetzea neurtu.

2022ko MAIATZA

- Dinamizatzaileron deskargua eta egitasmoaren balorazioa.
- Udako kanpaina abiatu.

2022ko EKAINA

- Azken jarraipen batzordea.
- Udako taldeak: izena emateko kanpaina eta taldeen aktibazioa.
- Memoriak aurkeztu.

2022ko IRAILA

- Lanean hasi.
- Kanpaina aktibatu.
- Jarraipen batzordeak deitu.
- Plangintzak aurkeztu.

7. EGINKIZUN NAGUSIAK. KRONOGRAMA

1. PARTE HARTZAILEAK

Ekintzabideak	Egutegia 2020-2021												
	I	U	A	A	U	O	M	A	M	E	U	A	
Kanpainaren kartelak inkatu, esku-orriak banatu, bannerra zabaldu, whatsapp bidez mezu zabaldu.	x	x											
Prentsa-oharra, prentsaurrekoa edo iragarkia argitaratu			x										
Blogean eta sare sozialetan iragarri	x	x											
Aurkezpenak euskaltegian		x	x										
ONLINE taldeak eskaintzeko kanpaina			x	x									
Indartzeko kanpaina urte berrian					x								
Udako kanpaina										x	x		
EPA eta Guraso Elkarrekin batu	x	x											

2. TALDEAK

Ekintzabideak	Egutegia 2020-2021												
	I	U	A	A	U	O	M	A	M	E	U	A	
Aurreko ikasturteko parte-hartzaileei deitu eta taldeak aktibatu.	x	x											
Izenak jaso eta datu-basea aldiro elikatu	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x			
Taldeetan argibideen orria banatu eta azaldu. Taldeen informazio-kanalak ziurtatu (telefonoa, e-posta, whatsapp)		x	x	x	x	x	x	x	x	x			
Parte-hartzaileen asistentziaren eta taldeen segimendua egin hilean behin: bisitak, deiak...		x	x	x	x	x	x	x	x	x			
Talde bakoitzean ordezkaria izendatu			x			x		x		x			
Partaideen asebetetzea neurtu						x	x	x					

3. EKINTZA OSAGARRIAK / KOMUNIKAZIOA

Ekintzabideak	Egutegia 2020-2021											
	I	U	A	A	U	O	M	A	M	E	U	A
Ekintzen agenda jarraipen batzordean adostu	X				X			X				
Partaideen artean inkesta pasatu; egin nahi dutena eta egiten dakitena jakiteko.	X	X										
Ekintzak burutu	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		
Ekintzen kartelak eta informazioa zabaldu sarean eta whatsappez	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		
Ekintzen informazioa hedabideetara bidali	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		

4. FUNTZIONAMENDUA

Ekintzabideak	Egutegia 2020-2021											
	I	U	A	A	U	O	M	A	M	E	U	A
Ikasturteko plangintza erredaktatu.	X											
Jarraipen batzordea deitu, gai-ordena bidali, akta jaso	X		X		X		X		X			
Ikasturteko memoria aurkeztu										X		